

10etik 24ra

Herrian zehar MARTXOAREN 8KO IKASTOLAKO EKIMENEN QR-AK

Feminismoaren eta berdintasunaren inguruko diskurtso ezkorrek gero eta ugariagoak dira, eta horrek gizartearen eragina du. Hala ere, **feminismoak azken urteetan lortutako aurrerapenak** ezin dira ahaztu, eta hauek balioan jartzea garrantzitsua da. Horregatik, ikasleekin feminismoaren lorpenak lantzea garrantzitsua da eta hortik sortutako materiala herrian zehar karteletan hedatzea, QR kode baten bidez herritarrek ikasleek landutako edukiak ikus ditzaten: irudiak, hausnarketak, bideoa...
- Publiko guztia

(Irurako ikastolak eta Irurako Udalak antolatuta)




Martxoan zehar

Ostatuan

ZAINTZAREN ARGAZKI ERAKUSKETA

Erakusketak zaintzaren bidez gizarte bidezkoagoa eraikitzen duten pertsonen keinuak, loturak eta istorioak jasotzen dituzten irudiak biltzen ditu. Zaintzaileen lan ikusezina eta askotan isildua nabarmentzen da, zeregin horiek modu ekitatiboan aitortu, baloratu eta banatzearen garrantzia azpimarratuz. **Zaintza erabateko berdintasuna lortzeko beharrezkoa den ekintza** eraldatzaile gisa pentsatzeko gonbidapena.

- Publiko guztia



2026KO EGUTEGIRAKO ARGAZKI-LEHIAKETA

2026ko egutegia osatzeko argazki-lehiaketarako gaia **'IRURA, ETA BERE KOLOREAK'** izango da. Urtero bezala, adin guztietako herritarrek parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Aukeraturako argazki-egileek 30€ko erosketabonua irabaziko dute. Lehiaketaren oinarriak www.irura.eus webgunean aurkituko dituzue. Animatu!

(Irura Bizi elkarteak antolatuta)

Martxoaren amaieran

Irurako ikastolan

AZOKA SOLIDARIOA LH6koen ESKUTIK

Urtero bezala, LH6koek aurten ere **elkarte baten aldeko azoka solidarioa** antolatuko dute. Asteazken zehar hamaiketako solidarioa erosteko aukera izango da patio garaian. Arratsalde batean, bigarren eskuko gauzen azoka prestatuko dute. Zehaztasun gehiago izatean jakinaraziko da, herriak ere parte har eta lagundu dezan.

- Euskaraz


(Irurako Ikastolak antolatuta)



TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK

Edukiontzien ondoan utzi daitezke hileko 1. eta 3. ostiral bezperan, 20:00etatik 22:00etara. Garbigunera ere eraman daitezke. Etxetresna elektriko berria erositzen gero, zaharra dendan ere utzi daiteke.

Martxoak 6
Martxoak 20



NOTA

Toda la información en castellano en www.irura.eus o en la oficina de cultura



euskara



Irurako udala



kultur mahaia



castellano



MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

IRURA ESKURA APLIKAZIOA

Gure herriaren berri uneoro eskura eta modu erosoan izatea ahalbidetzen du.

Oso erraza da aplikazioa mugikorrean instalatzea. Android sistemako mugikorretan Play Store-n sartu behar da, iPhone-etan, APP Storean. Bi kasuetan, Irura hitza idatzi bilatzailean. Aplikazioan klik egin eta deskargatu.



MARTXOAK 14 ZAINTZAREN DANTZA



12 / asteazkena **11:00** San Migel plazan
TIPI TAPA: IRURAKO ADINEKOAK SASOIKO EGOTEKO EGITASMOA

Adinekoak sasoiaren egoteko aukera bikaina.
65 urtetik gorako pertsonen ibilbide bat egiten dute ariketa fisikoa bultzatu eta elkarren arteko harremanak sustatzeko. Ibilbidea hamaiketako batekin amaitzen da. Nahi duenak 10 minutu lehenago luzatze ariketak egiteko aukera izango du.
· +65 urte



07 / ostirala Irurako ikastolan
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA LANTZEN ETA OSPATZEN

Emakumeen Nazioarteko eguna ospatzeko, hainbat ekintza antolatu dira aurreko egunetan egiteko. Egunean zehar ikastolako leihoan zapi morea izango da zintzilik eta ikastolako leihoak apainduko dira. Ikasleak morez jantzita etorriko dira ikastolara eta bakoitzaren adinaren arabera jarduerak, bideoak eta abestiak landuko dituzte. Udalarekin elkarlanean, egindako lanak herrian ikusgai egongo dira.
· Euskaraz
(Irurako Ikastolak antolatuta)

08 / larunbata Herrian zehar
MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Emakumearen nazioarteko eguna ospatuko da Iruran Martxoak 8an. Elkarretaratzea eta poteo musikatuarekin emango zaio hasiera. Bazkaria Ostatuan izango da eta ondoren musika kontzertua. Bazkarirako txartelak Ostatuan jarriko dira salgai.
· Euskaraz
· Herriko emakumeak
(Irura Moretuz elkarteak antolatuta)



18 / asteartea **17:30** Liburutegian
"PANPINAK AITORRENTZAT" MAITE FRANKOREN IPUIN-KONTAKETA

"Panpinak Aitorrentzat!" Jostailuak eta generoa lantzen dituen saioa da, sexu-rolen banaketa salatuz eta, aldi berean, emakume eta gizonen eskubide eta eginbeharren arteko berdintasuna bultzatuz. Eta, jakina, ipuin-kontaketa saio batek eduki beharko lituzkeen osagaiak ditu: umore asko, misterioa, parte hartzea eta baita ezusteko txikiak ere.
· Euskaraz · 4 eta 9 urte bitartekoentzat.
Oharra: haurrak bakarrik sartuko dira.

07 / ostirala **19:00**
Udaletxeko Ganbaran
GREGORIA

Feminista jaio ala egin egiten da? Sortzaileak bere bizitzan feminismoak izan duen eragina aztertzen du, tonu umoretsuan.
· Euskaraz
· Publiko guztia
· Sarrera: 3 €
(Irura Moretuz elkarte eta Irurako Udalak antolatuta)



14 / ostirala **17:30**
Kulturunean
ZAINZAREN DANTZA

Antzezlan honek mezuak zaintza eremu ezberdinetara zuzentzen du: emakumea, erantzukizukidetasuna, autozaintza eta ingurugiroaren zaintza; **Gizarte eredu inklusibo bat aldarrikatuz.**
· Euskaraz
· Publiko familiarra (4 urtetik aurrera)



29 / larunbata **12:00**
Udaletxeko Ganbaran
"AHOZ AHOKO ZUBIAK"

"Pais Valenciá-n 2024ko DANA uholdeen ostean, ipuin-kontalari asko izan ziren protagonista "Contes per la DANA" kanpaina solidarioan. **Eva Andujar** valentziarra eta **Dorleta Kortazar** euskalduna elkartu dira Iruran saio berezi hau eskaintzeko **AHOZ-AHO 2025 Jaialdiaren barruan.**"
· Euskaraz eta balentzieraz
· Publiko guztia

